

# Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es



EIZIE-ko kideak, martxoaren 23an antolatutako batzarrean, Iruñean. Itziar Diez de Ultzurrun ezkerreko aldean dago, zutik, soineko loreduarekin. EIZIE

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN ITZULTZAILEA ETA EIZIE-KO LEHENDAKARI BERRIA

## “Itzultzaileon lana funtsezkoa da kulturen arteko harremanarako”

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) urteroko batzar nagusia antolatu zuen Iruñean. Zuzendaritza taldea berrituz gero, Itziar Diaz de Ultzurrun itzultzaile iruindarra da lehendakari berria.

**NEREA ALEJOS**  
Iruñea

**Duela 30 urte sortu zen EIZIE, itzulpengintza lanbide gisa duintzeko helburuarekin. Azkenaldi honetan, prekaritatea da itzultzaileen arazorik larriena?** EIZIEk euskaratik edo euskarara itzultzen, interpretatzen nahiz zuzentzen diharduen jendea biltzen du eta gure elkartearen helburuen artean profesionalen lan-baldintzei kasu egitea ere badago. Askotariko langileak biltzen gara EIZIE-n: administrazioko itzultzaileak, interpreteak eta zuzentzaileak, literatur itzultzaileak, ikus-entzunezkoenak, zinpeko itzultzaileak... Beren kasa aritzen dira batzuk, soldatapean beste batzuk, eta, beste arlo batzuetan gertatzen den gisan, gure langintza honetan ere denok ez ditugu lan-baldintza berak. Lan-baldintzen prekarizazioa arazo hagitza larria da gaur egun esparru askotan, gurean ere bai, eta horregatik beharrezkoak ditugu baldintza eta ordainsari duinak bermatuko dituzten legeria eta hitzarmenak. **Zein helburu jarri dizkiozu zure buruari, lehendakari gisa?** Ahalik eta egokien laguntzea EIZIE-ren xedeak betetzen. Joan den larunbateko batzarrean zenbait premia azaleratu ziren. Besteak beste, azpimarratu zen elkartearen jarduna eta gure lanbideak ikusarazten jarraitu beharra dugula, baita itzulpenaren

errealitatea belaunaldi berriei erakusteko bideak aztertzen ere. Horrez gain, bileran nabarmendu zen EIZIEk Nafarroari leku handiagoa egiteko nahia eta beharra daudela eta, beraz, nafarra naizenez eta hemen bizi naizenez, horretan ahalegin berezia egin behar dudala iruditzen zait. **Zer egin behar da itzultzaileen lana prestigiatzeko eta gizarteratzeko?** Hasteko eta bat, gure lana areago ikusarazi beharra dago. Itzulpena ezinbesteko langintza da gure munduan, zubi-gileak gara eta itzultzaileon zubi-lana funtsezkoa da kulturen arteko harremanetarako. Egungo mundu globalizatua ezinezkoa litzateke itzultzaileon lana tartean ez balitz. Geurera etorritz, itzulpenak ekarpen handia egiten die euskarari, euskal kulturari eta hizkuntza normalizazioari, eta ekarpen horrek aitortza behar

### ESALDIAK

“Ildo berri interesgarri bat litzateke hezkuntzan itzulpengintzari loturiko edukiak lantzea”

“Virginia Woolf-en ‘Dalloway andrea’ da orain arte itzuli dudana lanik gaitzena”

du jendaurrean. Ildo berri interesgarri bat litzateke hezkuntzan itzulpengintzari loturiko edukiak lantzea haur eta gazteei gure lanaren berri emateko. EIZIEk landua du jada horretarako proposamena eta tailer bat ere eskaintzen du eskoletan gure jarduna zertan den azaltzeko.

**la 25 urte bete dituzu Nafarroako Gobernuan itzultzaile gisa. Nola hasi zinen literatura itzultzen, eta zer bilatzen zenuen literaturaren munduan?**

Igela argitaletxearen bidez hasi nintzen literatura itzultzen, Xabier Olarrak akuilaturik eta haren laguntzarekin. Ofizioa afizio bihurtzen zaidan eremua da literatur itzulpena. Jauzia emateko bi pizgarri izan nituen: batetik, erronkari aurre egiteko gogoia, saiatzeko nahia; bestetik, kanpoko literatura euskaraz gozatzeko dugun eskaintza zabaltzen laguntzeko gogoia.

**Virginia Woolf-en Dalloway andrea, Philippe Claudel-en Brodecken txostena edo Agatha Christiren Bikarioetxeko hilketak itzuli dituzu, besteak beste. Zein izan da zuretzat libururik zailena? Bikarioetxeko hilketak izan zen lehena eta ahaleginik handiena eskatu zidana, inondik ere. Jardun honetan ere aritzea baino hobirik ez dago eta, hortaz, ondotik etorri diren itzulpenak berez zailagoak izan arren, beste aldarte batez ekin diet, eskarmentuak ematen duen konfiantzarekin edo. Despentesen King Kong Teoriaren lehen kapitulua ez zitzaidan batere samurra egin, baina, segur aski, Dalloway andrea izanen da orain arte itzuli dudana lanik gaitzena.**

**Angela Davisen Emakumeak, kultura eta politika itzulpengintzan parte hartu duzu. Nola ikusten duzu feminismoaren bultzada literaturan?**

Bai, gero eta aukera gehiago dago, zorionez, orain baditugulako feminismoaren ekarpenak euskarara ekartzeko gogoz dauden zenbait argitaletxe, baita bi bilduma berezi ere: Elkar eta Jakin batera bultzatzen ari diren Eskafandra bilduma, eta Susak abiarazitako LISIPE bilduma. Katakarak argitaletxea ere testu interesgarriak euskaratzen ari da. Salmentei begira, berriz, badirudi feminismoaren ekarpen teorikoak euskaraz irakurtzeko nahia badagoela.

**Ze liburu gustatuko litzazuke itzultzea?**

Ez da erraza bat hautatzea, gustuko liburu bat irakurtzen dudana aldiro pentsatzen baitut: gozamen litzateke hau euskaratzea. Nolanahi ere, gustura itzuliko nuke hauetako edozein: Christine de Pisan-en *Le Livre de la Cité des Dames*, Chimamanda Ngozi Adichie-ren *The Think Around Your Neck* nahiz *Dear Ijeawele*, edo *Xerezaderen Artxiboa* blogaren bidez ezagutu berri dudana NoViolet Bulawayo-ren *We Need New Names*.

**Zeri eman behar zaio garrantzi gehiago, zehaztasunari ala edertasunari?**

Zehaztasunari, baina jatorrizkoaren edertasuna euskaraz eta euskaratik birsortuz jakina. Itzulgaia zehatz eta eder eman behar dugu xede hizkuntzan, jatorrizkotik ahal bezain hurbil eta behar bezain urrun, itzultzaileok maiz esaten dugun bezala.

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala | agenda

---

**Apirilaren 2a, asteartea**

Ipuin ordua eta gehiago ere...  
**IPIIN-KONTALARIA**  
 Ventura Ruiz ipuin-kontalaria  
 4 urtetik gorako haurrentzat  
 Mendilorriko Liburutegi Publikoa. 18:15. Sarrera librea

---

**Apirilaren 4a, osteguna**

Ipuinaren ordua  
**IPIIN-KONTALARIA**  
**Kontalaria: Maitane Perez**  
 4 urtetik gorako haurrei zuzenduta  
 Milagrosako Liburutegi Publikoa. 18:00. Sarrera doan

Euskarazko film laburren XVI. Zirkuitua – 2019  
**ZINEMA**  
 Euskaltzaileen topagunearekin elkarianean  
 Kondestable Civivoxa .19:30. Sarrera librea, tokiak bete arte

Euskarazko film laburren XVI. Zirkuitua – 2019  
**SOLASALDIA**  
 Hizlaria: Arantza Ibarra egilea  
 Kondestable Civivoxa .19:45. Sarrera librea, tokiak bete arte

Bizitxoko  
**LANTEGIA**  
**Bizikleten konponketa-lanak**  
 Juanjo Iriarte, Emauseko Trapuketariaren teknikaria  
 Ingurumen Hezkuntzako Museoa. 18:00 – 20:00. Sarrera librea

Argibide gehiago: 010 telefonoa • www.pamplona.es